



SARRERA

DBH garaian oinarrizkoa da kontuan izatea duten aldaketa garaia eta taldeko erlazioek eta norberaren identitateen definizioak duten garrantzia. Gainera pentsamendu abstraktua garatzera eta praktikan jartzera bultzatzea.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



ALTERNATIBAK SORTZEN

Euskal Herrian animalien erabilerarekin egiten diren kirol moten alternatibak bilatuko edo asmatuko ditugu, posible al da gizakiak bakarrik parte hartu dezaketen animalia jokoak egitea?

Askegintza bideoa: eztabaida

Bide hau proposatzen da girotze moduan.

[Askegintza: animalien erabilera gurean](#)

Galdera hauekin eztabaida gidatuko da.

- Animalien tratu txarra beste herrialdeetan ematen al da soilik?
- Inoiz sokamuturrean parte hartu al duzu?
- San Ferminak atsegin al dituzu?
- Animalia hauen ezerosotasuna, gurearekin alderagarrai al da?
- Ba ote dago alternatibarik animalien erabilera kirol munduan ekiditeko?

Alternatibak

Ondorengo animalia frogetan ondoko galderak erantzun behar dira.

- 1- Egin animalia, frogara iritsi eta froga amaitu ostean, izango lukeen ezerosotasun grafika bat (x ardatza – frogaren unea- y ardatza–ezerosotasun maila-). Kontutan eduki: garraioa, inguruko jendea, froga, zauri posibleak, entrenamenduak (*ikus adibidea*)
- 2- Ba al dago froga bera gizakiarekin egitea? Diseinatu giza forga bat, erakargarria izango litzatekeena eta animaliarik gabea.



Adibidea: idi frogak

EGOERA	EZEROSOTASUN MAILA (0-10)	ZERGATIA
Ikuiluan	3	Leku ezagun eta eroso, ongi elikatua, baina lotuta dago
Entrenamenduak	5	Tarteka lan fisiko bat egiten du.
Frogarako garraioa kamioi batean	8	Kamioia itxita dago, argitasunik ez, animalia lotua dago.
Plazara ateratzea	9	Jendearen zarata, zoru gogorra, ibiltzeko zailtasunak.
Froga	10	Frogaren esfortzua eta zarata. Min fisikoa egiten diote akuiluarekin.
Etxera bueltan kamioiez	8	Kamioi berean, nekatuta eta iluntasunean etxera bueltan
Ikuiluan	7	Egun osoko estresa dauka, egun batzuk behar ditu errekueratzeke.

